


BALIABIDEAK



Aitor Aiestaran
Ander Barkin
Maialen Etxebeste
Miren Garmendia

BALIABIDEAK

Baliabideak bereziki kontuan hartu beharreko arlo bat dira, izan ere, modu honetan, enpresak bakoitza bezeroarengana iristen da, bezeroarekiko harremana mantentzen du, eta azkenik, honi esker diru sarrerak lortzen ditu. Hori horrela, funtsezko baliabideak lau multzotan sailkatzen dira; baliabide fisikoetan, baliabide intelektualetan, giza-baliabideetan eta finantza-baliabideetan.

Alde batetik, baliabide fisikoak behar beharrezkoak dira. Horren adibide; produktuak fabrikatzeko instalazioak, bulegoak, ibilgailuak, makinak, sistema informatikoak, salmentarako puntuak, banaketa sarea, sistema informatikoa eta salmenta puntuak dira. Azken finean, enpresen baliabide fisikoak ondare hautemangarri guztiak dira, enpresaren boterean, beraren helburuen lorpenerako erabiltzearekin suszeptibilitatedunak direnean. Hori horrela, behar beharrezkoak izango lirateke gure proiektua pertsiana automatizatuak egitea delako, eta hori burutzeko ezinbestean behar izango ditugulako baliabide fisiko horiek gure produktua fabrikatzeko instalazioak.

Beste aldetik, baliabide intelektualei erreparatuta, markak, jabegoa, ezagutza, patenteak, egile-eskubideak, elkarteak eta bezeroen datu-baseak direla kontuan hartuta, hau ere beharrezkotzat hartu dugu, gure ideia finkatzeko ezinbesteko arloak lantzen dituelako. Hala nola, publizitatea nahiz informazioa gordetzea.

Giza-baliabideetan aldiz, sormena ezagutza eta gaitasun komertziala lantzen dira. Hortaz, argudiatu beharrik ez dago hau ideia bat sortzeko garaian oinarria dela.

Azkenik, finantza baliabideak ere ezinbestekoak direla ondorioztatu dugu, horietan oinarritzen baitira eskudirua, kreditu-linealak, soldatak ordaintzea, bestelako erosketak egitea eta negozioa bera zabaltzea ere. Hortaz, gure proiektuari dagokionez nahitaezkoa izango litzateke, esan bezala langileei soldatak ordaintzeko eta bestelako erosketak egiteko, gure kasuan, pertsianeiei dagokienez.

Behin funtsezko baliabideak azalduta, negozio-eredu batean funtsezko baliabideak aplikatzeko moduak ondorengoak dira; externalizazioa, kostuak murriztea, hobetzeko aukera, iraunkortasuna eta ordeztzeko aukera.

Alde batetik, externalizazioan, funtsezko baliabide bat kanpoko enpresak batek gara dezake kostuak merkatzeko edo enpresa baten esfortzuak balio erantsi handiagoa eskain dezakeen beste arlo batzuetan kontzentratzeko. Adibidez, telefonia mugikorreko enpresek espezializatutako enpresen esku uzten dute telefonoen fabrikazioa.

Bestetik, kostuak murriztea, funtsezko baliabideek enpresa baten kostuetan duten eragina minimizatzea da. Batzuetan, merkatua hobeto segmentatzeak edo gure baliabideak hobeto kudeatzeak kostuak murrizteko aukera ematen dute.

Hobetzeko aukera berriz, produktu edo zerbitzu bat perfektionatzeko gaitasuna da. Edozein baliabide hobetu egin daitekeen ustetik abiatuta, honako galdera egin beharko dugu: zenbateraino interesatzen zaigu enpresa edo organizazio baten funtsezko baliabideetan hobekuntzak egitea? Hobekuntza jarraituen adibide dira, esaterako, Google eta Facebook; etengabe egiten dituzte berrikuntzak, gorenean mantentzeko helburuz.

Iraunkortasunari dagokionez, enpresa baten funtsezko baliabideak ordeztuak izan ahal behar dira enpresak bere jarduerari eutsi nahi badio. Adibidez, arrantzaren arloan diharduen enpresa baten kasuan, arrain-sardak berriz jartzeko denbora eman behar du, bestela, iraungitze-data izango luke negozio horrek.

Azkenik, ordezteko aukera, Funtsezko baliabideak proiektu baten funtsa dira; beraz, ezin izan beharko lukete ordeztuak izan. Ordezgarriak izatekotan, edo ez ziren benetan funtsezko baliabideak edo negozio-eredua aldatu egin da.

Hau dena azaldu ondoren, hasieran aipatu bezala, argi dago baliabide guztiak direla ezinbestekoak. Beraz, gure proiektua zein den kontuan hartuta, denak erabiliko genituzke. Hau da, baliabide fisikoak, intelektualak, finantza baliabideak eta giza baliabideak.